

BAZTERRA ETA AHOTSA

Poesiak gaur egun bazterreko ahots besterik ezin du izan, eta gainera, nire ustez behintzat, ez litzateke ona hala ez izatea, kasu horretan ez litzatekeelako izango poesia, baizik eta BMWren telebistako azken iragarkia. Baztertu hau bi zentzutan uler daiteke: baztertuta, beste erremediorik izan ez duelako, gizarteak hala erabaki duelako, marjinatu edo bigarren plano batera derrigortu duelako (poema hauetan ahots poetikoa emakumearena da, esplizituki askotan: *Gaur, emakumea naizela konturatu naiz...* badago halako aldarrikapen esplizitu bat, tituluetatik bertatik hasita: *Esnaera (I)* eta *Esnaera (II)* poemek badute errebeldia puntua, ezarritako rol eta kortseetatik ihes egin nahi duenarena). Baina *bazterreko* uler daiteke baita ere zuhurtziaren ertzetik eta gauzak eta mundua ikustearen bazterretik ari denaren ikuspuntutik, gauzak hobeto ikusteko propio apartatu denaren ikuspuntutik. Edozein kale peatonaletan jartzen bazarete ikusiko duzue bere buruaz oso seguru dagoen jendea kalearen erdi-erditik joaten dela, bere buruaz eta munduaz eta munduan duen zereginaz hain seguru ez dagoen jendea bazterretik joaten den bitartean, bat-batean euria hasteko arriskuaren kontzientzia balu bezala. Eta poetak, gaur egungo poetak, bazterretik joan behar du ia-ia derrigorrez, bazterra, pareta umel hori delako poetaren lekua, bertan idatzi behar dituelako poemak. Poetak eusten dio bazterreko hormari. Poeta horma utziz kalearen erdira etorriko balitz, hiriak be-

hera amilduko liratekeen sentipena dauka batek. Bazterrekoek eusten diete kaleei.

Ez dakit nork esaten zuen poesia ez dela sortzen bakarrik edo norbere buruari hitz egitearen beharretik, baizik eta gure aurrean dagoen aulki huts bati hitz egitearen premiatik. Benetako poesiaren abiapuntuan badago -edo egon behar luke- jatorrizko min bat edo ausentzia presente bat beraz, aulki huts bat, eta Anaren poemarioan ere baietz iruditzen zait (bigarren atalaren izenburua ikusi besterik ez dago: *Zauri irekia*). Poemario honetako poemak ez dira birkreazio bat, ez dira ariketa estetiko huts bat -erritmo aldetik eta hitzen hautuaren aldetik oso liburu zaindua izanagatik- baizik eta badago zerbait irakurleak etxera eramango duena poema horietatik, min *lagin* bat, nolabait esatearren.

Izan ere, poesia irakurleari -eta irakurleari orohar, baina batez ere *poesia* irakurleari- interesatzen zaizkion poemak lehenago edo beranduago irakurlea bera azaltzen den poema horietatik dira. Eta liburu honetako poema askotan hori gertatzen da, irakurleak bera agertzen dela sentitzen du (*Pentsamendua lisatuz* poema da nire kuttunenetakoa: poema hau irakurtzen dudanean ohartzen naiz bertan agertzen naizela: ez naiz igandeetako kirol-karruselzalea, plantxatzen ari dena baizik, norbaitek dudarik balu).

Poemetan askotan agertzen diren bi hitz *irla* eta *ispilu* dira. Poetak ingurura begiratzen du eta bakarrik sentitzen da bere behaketan, gaitzespen eta mamuz inguratuta, eta orduan bere parean dagoen ispiluaren aurrean jartzen da, bere burua proban jartzen du. Poeta beldur da begiak irekiz gero topatuko duena ez dela jada bera izango eta horregatik, kosta egiten zaio keinua egitea, beretzat erosoagoa litzateke begiak itxita jarraitzea: begiak ireki ahala orde, poema idazten doa, lerroz lerro. Gogoan dut bazela film bat etxetik ateratzen zen bakoitzean etxeko sarreran zegoen hormako ispiluaren parera iristean makurtzen zen pertsonaia bat agertzen zena, ez baitzitzaion

bere burua ispiluetan ikustea gustatzen. Anak ez dauka arazo hori, poema da bere ispilua eta bera hantxe jartzen da, nahiz eta jakin batzuetan askoz ere osasungarriagoa litzatekeela bere osasun mentalarentzat etxetik atera aurretik ispiluaren azpitik makurtuta pasatzea.

Oso puntualki agertzen dira poemetan baita ere *itsasargiak*, *iratxoak*, nolabait kondairazko mundu batera eramaten gaituzten elementuak. Liburu honetako lorpen bat dira, estilo oso propioa ematen diotenak poema askori, kontraste bitxia sortzen laguntzen dutenak. Izan ere, badira poema berean esaldi gordinak eta leunak, esaldi zuzenak eta metaforikoagoak, badago halako konbinazio bitxi bat mundu oso kaleko (edo oso *etxe barruko*, nondik begiratzen den) eta oso eguneroko eta oso errealismo zikinekoaren eta irrealismo printza noizbehinkakoen artean. “Nire aitonak ez zekien metafora bat zer zen... Ez zekien irakurtzen...”. Mundu kontzeptualaren eta mundu zuzenaren arteko konbinazioa hasieran arraroa egingo zaio akaso irakurleari, baina badu estilo horrek bere koherentzia propioa.

Emakumeak mozkorrekin eta umeekin parekatzen ditu, ahulekin, azken finean baztertuekin, baina baita desira putzu agortezinak direnekin ere. Ahotsa eta zauria. Zauria eta desira. Biak bazterrean. Biak gauza bera.

Harkaitz Cano (2002ko iraila)